ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2025eko otsailaren 17a, astelehena • 19 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## VITORIA-GASTEIZKO UDALA

### ALKATETZAREN, ERAKUNDE HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN SAILA

Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua

**2025ean herritartasun inklusiboa eta diskriminaziorik gabea sustatzera bideratutako proiektuetarako dirulaguntzen deialdia arautzeko oinarriak**

**1. Erregulazioa**

Deialdi honen xede diren dirulaguntzak, bertan aurreikusitakoaz gain, honako hauen arabera arautuko dira: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua), eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra (dirulaguntzen ordenantza orokorra, aurrerantzean), zeinaren helburua baita Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozedura arautuko duten oinarri orokorrak ezartzea.

**2. Dirulaguntzen ildoa**

Dirulaguntzen deialdi hau: 2025ean herritartasun inklusiboa eta diskriminaziorik gabea sustatzeko proiektuak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2022ko urtarrilaren 21ean onartutako indarreko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren (2022-2024) 9. lerroan kokatzen zen.

Baina deialdi hau aldez aurretik izapidetu denez, dirulaguntzen erregelamendu orokorrak —uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia— 56.1 artikuluaren a) letran adierazitako zirkunstantzia tarteko, eta egungo Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren indarraldia 2024ko abenduaren 31n amaituko denez, lerro hori Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren proiektuan sartu da (2025-2027), zeina erantsitako fitxaren arabera izapidetzen ari baita.

Lortu nahi diren helburu espezifikoak eta ondorioak.

Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza defendatzen eta sustatzen duten eta herritartasun inklusiboaren alde egiten duten proiektuak bultzatzea eta babestea, aniztasunaren eta giza eskubideen kulturatik abiatuta bizikidetza eraikitzeko helburuarekin.

**3. Deialdiaren xedea**

Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza defendatzen eta sustatzen duten eta herritartasun inklusiboaren alde egiten duten proiektuak bultzatzea eta babestea, aniztasunaren eta giza eskubideen kulturatik abiatuta bizikidetza eraikitzeko helburuarekin.

**4. Aurrekontu-kreditua**

Deialdi honen ildotik ematen diren laguntzak Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuaren 2025eko ekitaldiko udal aurrekontuetako 01 81 2361 4 8901 partidako kredituaren kontura joango dira (gehienez ere 60.000,00 euro).

Oinarri hauek dirulaguntzen erregelamenduak —azaroaren 17ko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsia— 56. artikuluan xedatutakoaren arabera bideratuko dira, alegia, aldez aurretik izapidetuko dira. Beraz, dirulaguntzak ematekotan, kreditu egokia eta nahikoa izan beharko da deialdia ebazteko orduan.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Baldin eta hasieran aurreikusitakoa baino diru-kopuru handiagoz hornitzen bada partida hori 2025eko aurrekontuetan, deialdiari aplikatu ala ez erabaki ahal izango du organo kudeatzaileak, eta ebazpena eman aurretik behar den gastu-dosierra izapidetu, beste deialdi bat egiteko beharrik gabe.

**5. Eskabideak balioetsi, bideratu eta ebazteko eskumena duten organoak**

Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua izango da organo instrukzio-egilea. Ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuko lau teknikarik osatuko dute eskabideak balioesteko batzordea; hauek izango dira: Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuko burua, lehendakari-arituko dena, eta zerbitzu horretako talde teknikoa.

Aurkeztutako informazioa zabaltzeko eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei balioespen-batzordeak, baita beharrezkotzat jotzen dituen udal zerbitzuen txosten teknikoak eskatu ere, eskabideak hobeto ebaluatzearren.

Organo instrukzio-egileak dirulaguntzak emateko proposamena aurkeztuko dio ebazteko eskumena duen organoari, hau da, Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari.

**6. Erakunde onuradunak**

Betekizun hauek betetzen dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateek jaso ahal izango dituzte deialdi honetako dirulaguntzak:

— Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Nagusian edo dena delako erregistro publikoan— izena emanda egotea, eta datuak eguneratuta edukitzea.

— Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 11. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan jasotako egoeretako batean ez egotea.

— Vitoria-Gasteizko udalerrian egoitza soziala edo ordezkaritza izatea. Entitate eskatzailea baldintza horretatik salbuetsi ahal izango da, baldin eta proiektua Vitoria-Gasteizko herritarrei zuzentzen bazaie edo horiek barne hartzen baditu, eta udalerrian garatzen bada.

Entitateen elkarteak ere izan daitezke onuradun, baldin eta bakoitzak bere aldetik aurreko paragrafoan adierazitako betekizunak betetzen baditu. Entitateek haietako bat izendatu beharko dute ordezkari gisa, taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoarekin.

**7. Diruz lagun daitezkeen proiektuak**

Vitoria-Gasteizko Udalak bizikidetza eta aniztasunaren alorrean dituen helburuen ildotik 2025ean egiten diren proiektuek jaso ahal izango dute dirulaguntza, bereziki Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzurako lehentasunezkoak diren kolektiboetako bati zuzendutakoek edo haien errealitatea barne hartzen edo jorratzen dutenek (atzerritar jatorriko pertsonak edo pertsona arrazializatuak eta desgaitasuna duten pertsonak) (1).

(1) Beste ardatz batzuetatik (generoa, sexu-identitatea edo -orientazioa, adina, estatus sozioekonomikoa eta abar) abiatuta definitutako kolektiboei zuzendutako proiektuak ez dira diruz lagunduko deialdi honetan, uste baita beste dirulaguntza ildo batzuei dagozkiela, ardatz horiek desgaitasuna, jatorria edo esleitutako arraza-kategoria barne hartzen duen ikuspegi intersekzional baten parte izan ezean.

Bizikidetza eta Aniztasunerako II. Planaren arabera, honako hauek dira bizikidetzaren eta aniztasunaren arloko helburu nagusiak:

1) Vitoria-Gasteiz diskriminaziorik gabeko hiri bihurtzea.

Berdintasuna eta aniztasunarekiko errespetua bizikidetzarako oinarrizko eta beharrezko baldintzak dira. Beraz, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzea eta bermatzea



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

funtsezko estrategia da bizikidetzaren oinarriak finkatzeko. Estrategia horren ildotik, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bultzatzearekin lotutako helburua duten proiektuek jaso ahal izango dute dirulaguntza hala nola (2):

— Herritarrak tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioaren inguruan sentsibilizatzea.

— Aniztasunaren kultura sustatzea: aniztasuna ezagutu, ikusarazi eta normalizatzea.

— Zurrumurruei, aurreiritziei, jarrera intoleranteei, gorroto-diskurtsoei aurka egitea.

— Hiria erabili eta gozatzeko aukera-berdintasunean aurrera egiteko neurriak eta estrategiak ezartzea.

— Diskriminazio kasuak salatzeko eta artatzeko baliabideak herritarren esku jartzea edo zabaltzea.

— Hirian diskriminazioa eragiten duten iturri nagusiei aurre egitea.

2) Herritartasun inklusiboa sustatzea.

Herritartasun inklusiboa lau elementutan oinarritzen da: giza agentzia (aukeratzeko eta ingurunean eragiteko ahalmena), gizartean parte hartzea, kide izatearen sentimendua eta identitate partekatua, eta herritartasun-eskubideetarako sarbidea. Oinarrizkoa da bizikidetzarako, funtsezko beste printzipio bati laguntzen dion heinean: askotariko pertsonen eta taldeen arteko interakzio positiboa. Ondorioz, herritartasun inklusiboa edo hura osatzen duten elementuren bat sustatzeko helburua duten proiektuek jaso ahal izango dute dirulaguntza. Adibidez:

— Desabantaila- edo zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen autonomia eta ahalduntzea bultzatzea.

— Pertsonen eta kolektiboen parte-hartzea (soziala, politikoa, ekonomikoa) erraztea, bereziki zaurgarritasun-egoeran daudenena edo historikoki diskriminatuak izan direnena.

— Aukera berdintasunean elkarri eragiteko eta elkar ezagutzeko espazioak eta baliabideak sustatzea.

— Lotura komunak identifikatzea eta kidetasun-sentimendua sortzea lan komunitarioaren, hiriko lotura-espazioen eta abarren bidez.

— Bizikidetzarako tokiko gaitasunak sustatzea memoria historikoaren, hiri-memoriaren, abegiaren eta harreraren, gatazken konponbide baketsuaren eta abarren bidez.

— Herritarren eskubideak ezagutaraztea eta haietarako sarbidea erraztea.

(2) Zerrenda hau eta 2. helburuan jasotakoa orientagarriak dira. Aurkeztutako proiektuek beste xede batzuk izan ditzakete, baldin eta koherenteak badira bi helburu nagusietako batekin. Bestalde, bi helburuak barne har ditzakete, bakar batera mugatu gabe.

Proiektuek ezin izango dute dirulaguntzarik izan:

— Helburua aurreko atalean deskribatutako bi helburu nagusiekin lotuta ez badago.

— Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak edo beste udal zerbitzu batzuek dagoeneko egin dituzten edo egiten diharduten ekintzen antzeko edukia badute.

— Beste udal-, foru- edo autonomia-erakunderen baten berariazko eskumenekoak badira.

— Osorik Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzekoak badira.

— Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik badira.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**8. Aurkesteko modalitateak eta eskabide bakoitzeko gehieneko kopurua**

Elkarteek bi modalitatetan aurkeztu ahal izango dituzte proiektuak:

— Banakakoa: entitate bakar batek landutako eta aurkeztutako proiektua.

— Kolektiboa: bi entitatek edo gehiagok elkarlanean prestatutako proiektua, zeinek elkarrekin parte hartuko baitute proiektua diseinatzen, helburuak definitzen eta proiektua gauzatzen. Parte hartzen duen entitateetako baten izenean izapidetuko da eskabidea, eta emandako dirulaguntza justifikatuko; orobat, entitate horrek jasoko du dirulaguntzaren zenbatekoa.

8.1. Baldintzak:

— Entitate bakoitzak gehienez bi proiektu aurkeztu ahal izango ditu: bat banakako modalitatean, eta beste bat modalitate kolektiboan (alde batera utzita modalitate horretan taldearen ordezkari gisa agertzen den ala ez).

— Talde bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahal izango du (taldea osatzen duten entitateek banakako proiektu bat aurkeztu duten ala ez alde batera utzita).

— Entitate batek bi modalitateetan parte hartzen badu, aurkeztutako proiektuek argi eta garbi desberdinak izan beharko dute helburuei, metodologiari, publiko hartzaileari, jarduerei eta abarri dagokienez.

8.2 Eskabide bakoitzeko gehieneko kopurua.

Proiektu bakoitzak dirulaguntza gisa jaso ahal izango duen gehieneko zenbatekoa aurkeztutako modalitatearen araberakoa izango da:

— Banakakoa: gehienez 4.000,00 euro eskabide bakoitzeko.

— Kolektiboa:

a) 1. modalitate kolektiboa: taldeko entitateek eremu berean jarduten dute, kolektibo berari zuzentzen zaizkio edo antzeko helburuak dituzte: gehienez, 10.000,00 euro eskabide bakoitzeko.

b) 2. modalitate kolektiboa: taldeko entitateek eremu desberdinetan jarduten dute, talde desberdinei zuzentzen zaizkie edo helburu nabarmen desberdinak dituzte: gehienez 12.000,00 euro eskabide bakoitzeko.

Eskatutako zenbatekoak ezingo du gainditu modalitate bakoitzean ezarritako muga. Muga hori proiektuaren guztizko aurrekontua baino txikiagoa bada, finantzaketa baliabide propioekin edo beste finantzaketa-iturri batzuekin osatzeko modua aurreikusi beharko dute entitateek.

**9. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak**

Zalantzarik gabe proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren gastuak egotzi ahal izango zaizkio dirulaguntzari, betiere haien kostuak ez badu inola ere gainditzen merkatuko balioa. Azken hori ziurtatzeko, 200,00 eurotik gorako gastuen proformako faktura edo aurrekontua —zerbitzuaren edo artikuluaren hornitzaileak emana— aurkeztu beharko da eskabidearekin batera.

Proiektuak ildo honen aurreko deialdietan dirulaguntza lortu badu, dirulaguntza horien justifikazioan aurkeztutako fakturen bidez ere egiaztatu ahal izango da aurrekontua merkatuko balioetan oinarritzen dela, betiere eskabide berrian sartzen diren gastu berdinei edo antzekoei buruzkoak badira.

9.1. Diruz lagundu daitezkeen gastu batzuen baldintza bereziak:

— Proiektua koordinatzeko gastuek ezingo dute aurrekontu osoaren ehuneko 10 gainditu.

— Proiektua gauzatzeko joan-etorriren bat egin behar bada, garraio publikoa erabiltzeari emango zaio lehentasuna. Garraio pribatuaren erabilerak behar bezala justifikatuta egon beharko du eta, kasu horretan, kilometroko 0,30 euroko muga ezartzen da.

— Zeharkako gastuak ere egotzi ahal izango zaizkio dirulaguntzari, baina proiektuaren zuzeneko kostuen ehuneko 10 gehienez. Zeharkako gastuak dira entitate onuradunaren gastu orokorrak eta administratiboak, diruz lagundutako jarduerak zuzenean sortzen ez baditu ere hura burutzeko ezinbestean egin beharrekoak, esaterako, eguneroko funtzionamenduarekin lotutako gastuak (energia elektrikoa, telefonoa, gasa, ura, gestoria, eta abar).

9.2. Ez dira diruz lagunduko honelako gastuak:

— BEZaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitorpena egitera behartuta badago.

— Entitate eskatzaileen azpiegiturekin, inbertsio-gastuekin edo lokalak mantentzeko lanekin zerikusia dutenak.

— Informatika-materiala edo ekipo teknikoak erosteak sortutakoak.

Baldin eta entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan diruz lagundu ezin diren gastutza jotakoak sartzen badira, edo Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak uste badu horiek ez diotela laguntzen proiektuaren helburuari edo ez daudela behar bezala justifikatuta, ez dira zenbatuko, eta proiektuaren aurrekontua ofizioz birdoituko da.

**10. Eskabideak aurkezteko modua eta epea**

Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdiaren laburpena ALHAOean argitaratzen denetik aurrera. Azken eguna larunbata edo jaieguna egokituz gero, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea. Eskabidea epez kanpo egiten bada, ezetsi egingo da, beste izapiderik gabe.

Bide hauetakoren baten bitartez aurkeztu ahal izango dira eskabideak:

— Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan (3). Horretarako identifikazio-txartel digitala erabili beharko da.

— Herritarrei laguntzeko bulegoetan. Arretaguneko digitalizatze-lana errazte aldera, DIN A4 tamainan aurkeztu beharko da dokumentazioa, eta orri solteetan, grapa, klip edo antzekorik gabe. Papera ez den beste euskarri batean erantsi behar bada dokumentazioa, karpeta batean jasoko da, edukiaren indizearekin, eta kanpoaldean etiketa jarrita, zein udal zerbitzuri dagokion zehaztuz.

— Posta-bulegoetan, gutun-azal batean, udal zerbitzua eta posta-helbidea zehaztuta: Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua, Frai Zacarias Martinez kalea 3.

— Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan (Zuzenean).

(3) https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org. Pertsona juridikoek nahitaez erabili behar dute bide hori, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

**11. Eskabidea eta agiriak**

Eskabidea formalizatzeko, entitate interesdunek honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte, salbuespenik gabe eta aurreikusitako epearen barruan (www.vitoria-gasteiz.org/bizikidetza web-orrian daude eskuragarri, “Tramiteak” atalean):

a) Vitoria-Gasteizko Udalari dirulaguntza eta laguntza ekonomikoa eskatzeko orria.

b) Onuradun izateko aukeratik kanpo uzten duten egoeretako batean ere ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena, 1. eranskineko adierazpen-ereduaren arabera.

c) Diruz lagundu beharreko proiektuaren deskribapena, 2. eranskineko gidoiaren arabera.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Behar denean, entitate interesdunek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

d) Lankidetza-hitzarmena, 3. eranskineko gidoiaren arabera, modalitate kolektibora aurkezten badira.

e) Eskabidea sinatzen duenaren ordezkaritza-ahalordearen egiaztagiria (4) eta NAN/AIZ/pasaportearen kopia, baldin eta entitateak lehen aldiz aurkezten badu proiektu bat dirulaguntza-ildo honetan, edo eskabidea sinatzen duen pertsona ez bada aurreko urteetakoa.

(4) Ordezkaritza egiaztatzeko, zuzenbidean baliozkoa den edozein bide erabil daiteke, esaterako: a) sinatzailearen ordezkaritza-ahalordea aitortzen duen notario-dokumentua; b) entitatearen estatutuak, karguen zerrenda eta deskribapena jasotzen dituztenak, eta entitatearen erregistroa edo kargu bakoitza betetzen duten pertsonen izena adierazten duen dokumentua; c) zuzendaritzako kide batek (eskabidea sinatzen duen pertsonaz bestelakoa) idatzi eta sinatutako idazkia, azken horren ordezkaritza-ahalordea egiaztatzen duena.

f) Azpikontratatziorako baimen-eskaera, baldin eta entitate eskatzaileak aurreikusten badu bere proiektuaren exekuzioa partzialki azpikontratatzea lotutako pertsona edo erakundeekin (ikus 15. atala, “Diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa”).

g) Beste deialdi batzuetan proiektu bererako dirulaguntza eskatu dela —edo ematea ebatzi dela— egiaztatzen duen dokumentazioa eta horren zenbatekoa, proiektua kofinantzatzea aurreikusten bada.

Dirulaguntza-eskabidea ez badago behar bezala formalizatuta edo daturen bat falta badu, edo eskatutako agiriren bat aurkezten ez bada, akatsa konpontzeko eskatuko zaio entitate eskatzaileari, hamar egun balioduneko epean. Hala egin ezean, eskabidea ezetsi egingo da besterik gabe.

**12. Bawliospen-irizpideak**

Proiektuek gehienez ere 100 puntu lortu ahal izango dituzte, ondoren zehazten diren bost irizpideen artean banatuta. Dirulaguntza jaso ahal izateko, gutxienez 15 puntu lortu beharko dituzte kalitate teknikoaren irizpidean eta 50 puntu balioespen orokorrean:

| **A. INPAKTU POTENTZIALA** | **40 PUNTU GEHIENEZ** |
|---|---|
| Bizikidetzaren eta aniztasunaren arloko helburuei egindako ekarpenaren maila | 10 puntu gehienez |
| Esku hartzen den egoeraren, problematikaren, beharraren edo eskaeraren garrantzia | 10 puntu gehienez |
| Proiektuaren irismena: tartean dauden edo onuradun izan daitezkeen pertsonen kopurua, edo kolektibo jakin baten ongizatean duen inpaktu-maila | 10 puntu gehienez |
| Beste ekimen batzuekin sinergiak sortzeko, Udalaren jarduera osatzeko edo estrategia edo prozesu zabalago bat finkatzeko gaitasuna | 10 puntu gehienez |
| **B. KALITATE TEKNIKOA** | **25 PUNTU GEHIENEZ** |
| Zehaztasuna eta zuzentasuna proiektuaren formulazioan | 5 puntu gehienez |
| Esku-hartzea gomendatzen duten arrazoiei buruzko argudioen sendotasuna | 5 puntu gehienez |
| Helburuen, proposatutako jardueren eta aurreikusitako baliabideen arteko koherentzia | 5 puntu gehienez |
| Helburuak zenbateraino bete diren eta proiektuaren inpaktua balioetsi ahal izateko ebaluazio-sistema bat txertatzea | 5 puntu gehienez |
| Proposamenaren berritasuna eta sormena | 5 puntu gehienez |
| **C. ZEHARKAKO HELBURUEI LAGUNTZEA** | **15 PUNTU GEHIENEZ** |
| Genero-ikuspegia txertatzea proiektuaren faseetan eta/edo neurriak ezartzea berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko | 5 puntu gehienez |
| Proiektuaren bidez landu beharreko errealitateari edo problematikari modu intersekzionalean heltzea | 5 puntu gehienez |
| Euskararen erabilera proiektuaren garapenean | 5 puntu gehienez |



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| D. BIDERAGARRITASUN ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOA | 10 PUNTU GEHIENEZ |
|---|---|
| Aurrekontua behar bezala oinarrituta egotea eta proiektuaren dimentsioarekin koherentea izatea | 5 puntu gehienez |
| Beste finantziazio iturri batzuk egotea | 5 puntu gehienez |
| **E. BIDERAGARRITASUN TEKNIKOA** | **10 PUNTU GEHIENEZ** |
| Entitateak edo lantaldeak proiektuaren esparruan duen esperientzia | 5 puntu gehienez |
| Plangintza zehatza, egingarria eta lankidetza-bermeekin, hirugarrenen esku-hartzea aurreikusten bada | 5 puntu gehienez |

**13. Laguntza emateko prozedura**

Norgehiagoka baliatuko da dirulaguntzak emateko prozedura gisa: eskabideak alderatu egingo dira, balioespen-fasean lortutako puntuazioan oinarritutako hurrenkera ezartzeko. Eskatutako gutxieneko puntuazioa (15 puntu kalitate teknikoaren irizpidean, 50 puntu balioespen orokorrean) lortu duten eta puntuazio handiena duten proiektuei emango zaie dirulaguntza, deialdiaren kreditua agortu arte (60.000,00 euro). Eskatutako zenbateko osoa esleituko zaie entitate onuradunei, baina betiere modalitate bakoitzerako ezarritako gehienekoa gainditu gabe.

Ebazpen-proposamenean, dirulaguntzaren onuradunez gain, ordezko entitateen zerrenda ere jasoko da, onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio ere. Eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten eta kreditua agortu delako dirulaguntzarik jaso ez duten erakundeek osatuko dute zerrenda hori, eta proiektuen puntuazioaren arabera ordenatuko da.

**14. Ebazteko epea eta jakinarazteko modua**

Ebazteko eta emaitza jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Ebazpena hedabide horretan bertan eta egoitza elektronikoko iragarki-taula digitalean (5) argitaratuko da.

Jakinarazpena egin eta hamabost eguneko epean entitate onuradunek berariaz uko egiten ez badiote, emandako dirulaguntza onartu dutela ulertuko da.

Deialdiaren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari. Horrekin ados ez daudenek, bi modutan errekurritu ahal izango dute ebazpen hori:

— Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

— Ebazpena eman duen organo beraren aurrean (Tokiko Gobernu Batzarra), hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ezesteko ebazpena ematen bada, errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegietan, azken ebazpen hori jakinarazi eta bi hilabeteko epean.

(5) https://egoitzaelektronikoa.vitoria-gasteiz.org/iragarkitaula.

**15. Beste laguntzekiko bateragarritasuna**

Deialdi honetan lortutako dirulaguntza bateragarria izango da Vitoria-Gasteizko Udalaren edo edozein erakunde publiko edo pribaturen beste laguntza-ildo batetik helburu bererako lortutako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta proiektuaren kostua gainditzen ez bada.

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 12. artikuluaren d) apartatuak ezartzen duenez, beste erakunde batek proiektu bererako dirulaguntza emanez gero, entitate onuradunak organo kudeatzaileari (Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzua) jakinarazi beharko dio, eman bezain laster eta, nolanahi ere, dirulaguntza justifikatu baino lehen.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**16. Diruz lagundutako proiektua azpikontratatzea**

Entitate onuradunek zati batean azpikontratatu ahal izango dute proiektuaren exekuzioa, aurrekontu osoaren ehuneko 50eraino. Entitate onuradun batek azpikontratatu egiten duela ulertuko da proiektuaren kudeaketa hirugarren batekin hitzartzen duenean. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da, beraz, entitate onuradunak diruz lagundutako proiektua gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak kontratatzea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29.7 artikuluak ezartzen duenez, entitate onuradunak berarekin lotura duten pertsonak edo entitateak azpikontratatu ahal izango ditu, baldin eta Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuari dagokion eskabidea aurkezten badio, behar den baimena lortzen badu eta azpikontratazioak proiektuaren kostua handitzen ez badu. Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzeko eta eskatzailearekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatzeko baimena emateko eskumena.

Argitze aldera, azpikontratatutako pertsona fisiko edo juridikoarekin lotura dagoela ulertuko da honako zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen bada (6):

a) Ezkontza-harremana edo horren antzeko afektibitate-harremana, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasuna.

b) Aldiro ordaindutako lan-harremana.

c) Azpikontratatutako pertsona dirulaguntzaren onuradun den entitateko kide elkartua edo zuzendaritza-batzordeko kidea izatea.

(6) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak —Toki Erakundeen Ondasunen erregelamendua onartzen du— 68.2 artikuluan jasotzen ditu zirkunstantzia horiek. Aipatutako artikuluan jasotzen diren beste zirkunstantzietako batzuk ez dira testu honetan islatu, dirulaguntza-ildo honen eskatzaileen gertuko errealitatetik kanpo daudelako. Dena dela, entitate onuradunak horiek ere bete beharko dituzte.

**17. Dirulaguntza ordaintzea eta likidatzea**

Bi epetan ordainduko da dirulaguntza:

— ehuneko 80, dirulaguntza emateko ebazpena eman eta 15 eguneko epea igarotakoan, betiere erakunde onuradunak dirulaguntzari uko egiten ez badio;

— gainerako ehuneko 20a, jarduera bukatu eta gastuak justifikatu ondoren.

Justifikazioa egiaztatzeko fasean, Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak egiaztatuko du entitateak osorik bete dituela oinarri hauen 18. apartatuan ezarritako konpromisoak. Halaber, egiaztatuko du azkenean exekutatu eta justifikatutako zenbatekoa bat datorrela entitate onuradunak eskabidean aurkeztutako aurrekontuarekin. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe bidegabe justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan.

Honako kasu hauetan ez da dirulaguntzarik ordainduko: entitate onuradunak Udalak emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu, edo entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**18. Dirulaguntza justifikatzea**

Dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorraren 33. artikuluaren arabera, entitate onuradunek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte 2026ko urtarrilaren 31era arte:

a) Proiektuaren azalpen-memoria, 4. eranskineko gidoiaren arabera. Gauzatutako proiektuarekin lotuta egindako azterlan, egitarau, argitalpen, kartel eta bestelako dokumentazio grafiko nahiz idatziaren ale bana aurkeztuko da memoriarekin batera.

Emakumeen eta gizonen egoeran duten eragina ezagutzeko, eta betiere diruz lagundutako jarduerak ahalbidetzen badu, entitate onuradunek sexuaren eta/edo generoaren arabera banakatutako informazioa eman beharko dute honako alderdi hauei buruz:

— Emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren azken onuradunak edo erabiltzaileak.

— Proiektua gauzatzen parte hartu duten profesionalak.

Gainera, halakorik aplikatu badute, berdintasun-neurrien eraginkortasuna ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazleak jaso beharko dituzte.

b) Justifikazioko kontu arrunta; hemen eskura daiteke: www.vitoria-gasteiz.org/bizikidetza, “Tramiteak” atala.

c) Euskararen erabileraren jarraipen-fitxa; hemen eskura daiteke: www.vitoria-gasteiz.org/bizikidetza, “Tramiteak” atala.

Justifikazioko kontu arruntean sartu behar diren agirien ezaugarriak:

— Faktura guztiek 2025eko data izan beharko dute, eta dagokien ordainketa-egiaztagiriarekin batera aurkeztu. Justifikazioko kontu arruntaren 2. atalean adierazi diren hurrenkera berean aurkeztu beharko dira.

— Faktura jaulkitzen duen enpresaren edo profesionalaren izaerak, helburuek eta merkataritza-jarduerek lotuta egon behar dute emandako zerbitzuekin edo kontratatuaren xede izan den proiektuarekin.

— Dirulaguntzaren justifikazioan ezin izango da gastu-kontzeptu berririk agertu, ezta dirulaguntzaren eskabidean aurkeztutako aurrekontuan aurreikusitakoak handitu ere. Hala ere, jarduera baten gastu soberakina beste baten defizitarekin konpentsatu ahal izango da, betiere konpentsazio horrek partidarik handienaren ehuneko 10 gainditzen ez badu.

— Dokumentu eta eranskin guztiek originalak izan behar dute, eta entitate eskatzailearen izenpea eta zigilua izan.

— Enpresaburu edo profesionalek entregatutako ondasunak edo emandako zerbitzuak faktura bidez egiaztatuko dira. PFEZren atxikipena egin behar bada, Foru Aldundian (edo dagokion erakundean) egindako atxikipen horren sarrera-egiaztagiria aurkeztu beharko da fakturarekin batera.

— Azpikontratatutako eta elkarteari lotutako pertsonen izenean dauden hartu-agiriak, fakturak eta nominak onartu ahal izateko, «Azpikontratazioko baimen-eskaera» eranskina entregatu beharko da, eta Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariak eskaera onartu beharko du.

— BEZa eskatzetik salbuetsita dagoen elkarte batek entregatutako ondasunak edo emandako zerbitzuak faktura bidez egiaztatuko dira; fakturan bertan berariaz adieraziko da hori, eta dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Zeharkako gastuak ez dira faktura edo hartu-agiri bidez egiaztatu behar, baina horien zenbatekoa justifikazioko kontu arruntaren 5. atalean adierazi behar da.

— Proiektua beste funts publiko edo pribatu batzuen bidez finantzatzen bada, funts horiek eman edo ukatu direla egiaztatzen duen dokumentazioa sartu beharko da.

**19. Entitate onuradunen betebeharrak**

Betebehar hauek izango dituzte entitate onuradunek:

a) Dirulaguntza emateko oinarria den proiektua 2025ean zehar gauzatzea. Aparteko kasuetan, jatorrizko proiektua aldatzeko baimena eman ahal izango da, baldin eta proposamen berriak deialdiaren xedearekin zerikusia badu, proiektuaren xedea eta helburuak funtsean aldatzen ez baditu eta hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 27. artikuluan eta 2023ko uztailaren 28ko Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 25. artikuluan arautzen den moduan.

Aldaketa egiteko, erakunde onuradunak idazki bat bidali beharko dio Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuari, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak azaltzeko eta aldaketa ezartzeko aldez aurreko baimena eskatzeko. Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi beharko du eskabidea. Edonola ere, aldaketak gauzatu aurretik aurkeztu beharko da eskabidea, eta 2025eko azaroaren 14a baino lehen.

b) Diruz lagundutako proiekturako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero, jakinaraztea. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, betiere, justifikazioaren aurretik.

c) Jasotako dirulaguntzari publizitate egokia ematea. Alde horretatik, erakunde onuradunak berariaz aipatu beharko du Vitoria-Gasteizko Udalaren lankidetza diruz lagundutako proiektua edo jarduera zabaltzen duten euskarri edo plataforma guztietan, eta udalaren logotipoa sartu beharko du material inprimatuetan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan, iragarkietan eta gainerako hedabideetan.

Argitalpenen kasuan, gainera, edukiaren gaineko erantzukizuneko klausula bat erantsi beharko du, testu honekin: «Vitoria-Gasteizko Udalak diruz lagundu du proiektu hau, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra».

d) Bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania, hurrenkera horretan) erabiliko ditu dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek elebidun izan beharko dute.

e) Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista eta inklusiboa egiteko konpromisoa, pertsonak bidezko modu batean irudikatzeko, generoaren edo egiturazko beste edozein desberdintasun-iturriren araberako rol eta estereotipoak indartu gabe.

f) Egiten diren estatistika, inkesta eta datu-bilketetan sistematikoki sartzea sexua/generoa (emakumea/gizona/ez-bitarra) aldagaia, edo diruz lagundutako erakundeak egokiagotzat jotzen duen beste edozein formula.

g) Dirulaguntzaren xede den proiektuaren jarduerak egitean irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren arloko irizpideak kontuan hartzea, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan —Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten du— definitzen diren moduan.

h) Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean ezarritakoa betetzea, bereziki, 4.b) artikuluari dagokionez.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

i) Udalari diruz lagundutako proiektuari buruz eskatzen zaizkion dokumentuak ematea, udaleko Kontu Hartzailetza Nagusiak egiaztatzeko eta finantzak kontrolatzeko egin beharreko ekintzen mende jartzea, eta, hala eskatzen denean, ikerketaren xede den dokumentazioaren kopia ematea.

j) Garbiketari eta hondakinen bilketa eta garraioari buruzko ordenantzan ezarritakoa betetzea publizitaterik jarri ezin den lekuei dagokienez.

**20. Lankidetza-konpromisoa**

Entitate onuradunek Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartuko dute, hark proiektuaren jarraipena eta/edo ebaluazioa egiteko beharrezkotzat jotzen duen guztian. Horretarako, zerbitzuak jarraipen-bileretara deitu ahal izango ditu entitate onuradunak.

Lankidetza horren barruan, entitate onuradunak udal ekipamenduak edo espazioak erabili ahal izango ditu proiektuak garatzeko. Horrelakoetan, tasetan hobariak aplikatzea erabaki liteke, edo horiek ordaintzetik salbuestea, ekipamenduaren berariazko araudiak hori baimentzen badu. Kanpoan zerbitzurik kontratatu behar bada, ordea, entitateak ordaindu beharko ditu.

**21. Errekurtsoak**

Deialdi honen aurka bi modutan jar daiteke errekurtsoa:

— Zuzenean, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

— Berraztertzeko errekurtsoa, ebazpena eman duen organo beraren aurrean (Tokiko Gobernu Batzarra), hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ezesteko ebazpena ematen bada, errekurtsoa jarri ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, azken ebazpen hori jakinarazten den egunetik edo errekurtsoaren ustezko ebazpena gertatzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

**22. Informazioa eta aholkularitza**

Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak argibideak eta aholkularitza eskainiko dizkie deialdi honen barruan dirulaguntza eskatu nahi duten elkarteei.

Kontsultak 945 16 13 45 telefonora deituz edo bizikidetza.convivencia@vitoria-gasteiz.org helbidera idatziz egin ahal izango dira.

Orobat, www.vitoria-gasteiz.org/bizikidetza web-orriko “Tramiteak” atalean egongo dira eskuragarri dirulaguntzen deialdi honekin lotutako dokumentu guztiak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 27an

*Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zinegotzia*
*ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

